

2017ko urtarrilaren 20an 2011ko Kontratazio-zerrenden webgunean argitaratu dira Giza Baliabideen zuzendariak 2011ko zerrendak argitaratzea aginduz apirilaren 22an eman zuen 122/2016 Ebazpenaren kontra eta berriro ireki diren bost kategorietako 2. Lehenetasun-mailako behin betiko zerrenda eguneratuak argitaratzea aginduz apirilaren 22an eman zuen 124/2016 Ebazpenaren kontra jarritako gorako errekurtsioak berrikusi ostean eguneratutako behin betiko zerrendak.

Era berean, Giza Baliabideen zuzendariak 6. Lehenetasun-mailako behin betiko zerrendak argitaratzea aginduz uztailaren 18an eman zuen 214/2016 Ebazpenaren kontra aurkeztutako gorako errekurtsioak berrikusi ostean eguneratutako behin betiko zerrendak argitaratu dira, 6. Lehenetasun-mailakoak.

Eguneratutako zerrendak informatzeko dira soilik. Horrek esan nahi du, beraz, ezingo dela erreklamaziorik edo errekurtsorik jarri haien aurka.

Eguneratutako zerrendak ikusteko: Zerrendak / Behin betiko zerrendak /Kategoria hautatzea / 1., 2., 3., 4., 5. edo 6. Lehenetasuna behin betikoa.